

FUNTSEZKO KANALAK

Zer dira funtsezko kanalak?

Enpresa batek, beste enpresa batekin komunikatzeko eta balorezko proposamena bezeroengana ailegatzeko modua da. Honetan, komunikazioa, banaketa eta salmenta kanalak funtsezkoak dira.

Zeintzuk dira gure enpresan funtsezko kanalak?




Aliatu serio eta esperientziazkoa edukitzea oso garrantzitsua da lan egiten duen gizarte- inguruarekin duen konpromisoa kudeatzeko. Horregatik, enpresa osatzen duen pertsonen haien ardura solidarioei erantzuteko kanalak eskainiko dizkiegu. Orduan, gaur egun, sare sozialak abiapuntuan dauden tresnak

direnez, hauek sortuko ditugu gure bezeroei gure informazioa helarazteko. Gainera, beste balio batzuk dituzten beste enpresa batzuekin harremanetan jartzeko, haiekin esperientziak trukatzeko, lankidetzan aritzeko eta ezagutzeko baliogarriak izango zaizkigu.

Gure erakundearen edo elkartearen hainbat kanal mota erabiliko ditugu:

- Bezeroengana irizteko kanal propioak erabiliko ditugu, hau da, lokal propioak
- Kanal zuzenak, kasu honetan online motatakoak izango dira bitartekari lana saihestuz



- Elkartutako kanalen bidez, batik bat, Open Arms-ekin harremanetan egonez gure elkarteko hainbat helburu eta informazio beraien iturritik sortuko dugu
- Aurreko bi kanalak elkartuz, hots, lokal propioa edukiz eta aliantzekin lotura edukitzea.

